

# Lizitazio Elektronikorako Sistemaren 3.0.1 bertsio berria



Kontratazio  
publiko elektronikoa  
Contratación  
pública electrónica



Eredu erraz, erabilgarri eta segurua

[www.euskadi.net/kontratazioa](http://www.euskadi.net/kontratazioa)  
[www.contratacion.info](http://www.contratacion.info)



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

OGASUN ETA HERRI  
ADMINISTRAZIO SAILA  
DEPARTAMENTO DE HACIENDA  
Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA

# Lizitazio Elektronikorako Sistemaren 3.0.1 bertsio berria

Lizitazio Elektroniko Sistema Sektore Publikoko Kontratu lege berrira eta gaur egungo teknologia estandarretara egokitzeko helburuarekin, Eusko Jaurlaritzak aplikazio horren bertsio berria garatu du. Horretarako, Lizitazio Sistema Elektronikoa aldaketak egin behar izan dira, lizitatzailerak erabiliko dituzten ordenagailuetan konfigurazioan eragina dutenak.

## Eskabide tekniko, osagai laguntzaile eta ordenagailuen konfigurazioan aldaketan zerrenda

Jarraian ordenagailu pertsonal batek dituen betebeharrak teknikoak laburpena aipatuko dizuegu, horretatik Lizitazio Sistema Elektronikoa ondo erabili ahal izan dadin.

### ESKABIDE TEKNIKOAK

- Microsoft Windows NT, XP (SP1 edo ondorengokoa) edo Vista sistema-eragilea.
- Microsoft Internet Explorer nabigatzailea (5.5 edo ondorengokoa).
- Espazio librea diskoan gutxi gorabehera eskaintza osatzen duten fitxategien tamainaren laukoitza da.

### OSAGAI LAGUNTZAILEAK

- Sun-en Java Makina Birtuala (6.0 edo ondorengokoa).
- Eskaintzak zatitzeko, kodetzeko eta bidaltzeko liburutegi laguntzaileak:
  - Zatitzeko eta kodetzeko DLL liburutegia.
  - Bouncy Castle-en liburutegi kriptografikoak.
  - Java-ren luzapen kriptografikorako fitxategiak.
- Txartel irakurgailua eta sinadura antzeman programa.
- Real Player online multimedia edukia erreproduzitzeko programa. Osagai hau ez da lizitatzeko nahitaezkoa.

### ORDENAGAILUEN KONFIGURAZIOAN ALDAKETAK

- Lizitazio Sistema Elektronikoa dagokion web gunea (<https://www6.euskadi.net>) lizitatu nahi den ordenagailu pertsonalaren Internet Explorer konfidantzazko zerrendan sartu.
- ActiveX osagaiak exekutatu lizitatu nahi den ordenagailu pertsonalean.
- TCP 80, 443 eta 444 atakak nahitaez ireki eta TCP 7070 eta UDP 6970-7170 atakak aukeran segurtasun perimetraleko sistemetan Real Player multimedia programa erabili nahi izanez gero.

## Aldaketak aurreko bertsioaren aldean

Konfigurazioari dagokionez zenbait eskabide, osagai eta aldaketa aurreko bertsioaren aldean berriak direla izan behar dugu kontuan. Jarraian, aurreko bertsioarekiko ezarritako aldaketak nabarmenduko ditugu:

- Lizitazio Elektroniko Sistema Microsoft-en Windows Vista sistema eragilearekin erabili daiteke.
- Lizitazio Elektroniko Sistemaren bertsio berria erabiltzen duen Java Makina Birtuala Sun Microsystems ekoizleak garatu eta banatzen duena da. Aurreko bertsioaren berriz, bere garaian Microsoft-ek ekoitzi eta banatutako Makina Birtuala erabiltzen zen.
- Bertsio berriak funtzio informatiko liburutegi multzo bat deskargatu eta instalatzea eskatzen du. Hain zuzen ere, zatitze, kodetze eta eskaintza bidalketa eragiketarik gauzatzeaz arduratuko direnak:
  - Zatiketa eta kodeketa liburutegiak (SecretS\_DLL.dll y SecretSharedNative.dll).
  - Bouncy Castle-ren liburutegi kriptografikoak (bcmail-jdkX-136.jar y bcprov-jdkX-136.jar).
  - Java-ren luzapen kriptografikorako fitxategiak (local\_policy.jar y US\_export\_policy.jar).

Helbide hauetan xehetasunez azaltzen da nola konfiguratu daitekeen ekipoa behar den moduan, lizitazio elektronikorako egoki prestatuta egon dadin:

[www.contratacion.info](http://www.contratacion.info)

[www.euskadi.net/kontratazioa](http://www.euskadi.net/kontratazioa)

## Konfigurazio tresna

PC-en prestaketa errazteko, aplikazioaren bertsio berriak ordenagailu pertsonal baten egokitasun frogatzea ahalbidetzen duen Konfigurazio Tresna dakar. Beronen helburua, elektronikoki lizitatzeko, eta horretarako eskatzen diren zenbait osagaien deskarga eta instalazioa burutzea da:

1. Sinadura hantzean softwarea dagoela eta egoki instalatzen dela frogatzea.
2. Sun-en Java Makina Birtualaren bertsio egokia dagoela frogatzea.
3. Zatitze eta kodetze liburutegien deskarga.
4. Bouncy Castle liburutegi kriptografikoen deskarga.
5. Java-ren luzapen kriptografikorako fitxategien deskarga.

Tresna hiru erataria egikaritu daiteke:

- Lizitazio Elektronikorako Sistematik bertatik, menu nagusiko "Konfiguratzeko tresna" aukeraren bidez.
- Eusko Jaurlaritzako Kontratazio Elektronikorako Ereduaren web gunetik ([www.euskadi.net/kontratazioa](http://www.euskadi.net/kontratazioa), [www.contratacion.info](http://www.contratacion.info)).
- Ordenagailutik bertatik, Eusko Jaurlaritzako Kontratazio Elektronikorako Ereduaren web gunetik tresna jaitsi ondoren.

Zeinahi zalantza edo kontsulta duzula, zoaz Erabiltzaileentzako Arreta Zentrora

- 012 telefona, Euskal Autonomia Erkidegotik egindako deietarako.
- 945 01 80 00 telefona, Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo egindako deietarako.
- Internet helbideak:  
[www.euskadi.net/kontratazioa](http://www.euskadi.net/kontratazioa)  
[www.contratacion.info](http://www.contratacion.info)
- Posta elektronikoaren helbidea:  
[kontratazioa@ej-gv.es](mailto:kontratazioa@ej-gv.es)

Egiazko lizitazio elektronikoko batean parte hartu aurretik, sistema honen berri izateko eta menperatzeko probak egitea gomendatzen dizugu

## Lizitazio Elektronikorako Sistemaren sartzeko eta irteteko eragiketaren aldaketa

### SISTEMAN SARTZEA

1. Sarrera-leihoan adierazi erabiltzailearen identifikazioa ziurtagiri elektronikoren bidez egingo da. Horretarako, "Ziurtagiria erabili" aukeran egin behar da eta klik egin.
2. Sistemak eskatuz gero, erabiltzailearen ziurtagiri elektronikoa hautatu sistemak eskaintzen duen ziurtagiri-zerrendan.
3. Ziurtagiri elektronikoren pasahitza sartu.
4. Erabiltzailea enpresa anitzeko ordezkaria bada, sistemak enpresa-zerrenda erakutsiko du, eta saio hasi berri horretan ordezkatu nahi duen enpresa aukeratu du erabiltzaileak.
5. Harik eta sistematik irteten arte, ez itxi "Egiatzapen Zerbitzua - Saioaren informazioa" leihoa.

### SISTEMATIK IRTETEA

1. Lizitazio Elektronikorako Sistemaren leihoa itxi.
2. "Egiatzapen Zerbitzua - Saioaren informazioa" leihoan, "Saioa itxi" aukeran egin klik.

